

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
36	276	215	487
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
2.987	86	7.442	2.021
positibo guztira*	ospitalizatuta	positibo guztira	ospitalizatuta
*Hernanin 55 Astigarragan 19		Sendatuak EAEn: 13.985; Naf: 2.917	

Lepoko zapia kenduko dute gaur Lizeagako auzotarrek, Maritxu Balkoiri behar den agurra emateko asmotan

Badira hainbat aste konfinamendua hasi zenetik, eta itxialdia eramateko moduak eta moduak egon dira. Hori erakutsi dute behintzat Lizeaga auzokoek, igandero egindako ekintza, jolas eta hamaika ikuskizunekin.

HERNANI MARTIXU BALKOI

Igaro dira jadanik 8 aste, konfinamendua hasi zenetik, eta itxialdi hau modu askotara eraman du jendeak. Eta ezaguna izan da, Lizeaga auzotarrena, igandero egin baitituzte modu askotako, joko, ekintza eta entretenitzeko hamaika ikuskizun.

Maritxu Balkoi taldea, prest

Heldu da Maritxu Balkoiri «beste bat arte» esateko garaia, izan ere, gaur egingo dute agurra. Eguerdiko 13:00etan, Maritxu balkoi lepoko zapia jantzita, auzotarrek bermuta antolatu dute «bermutera aterako gara musikaz girotuta gure pintxoekin».

Tartean, hitz batzuk eskainiko dituzte, itxialdiari buruzkoak, eta igandetako giroei buruzkoak. Horrez gain, pintxo lehiaketaren sariduna zein den jakingo da.

«Abesti berezia»

Amaitzeko, *Pobre de mi* abesti «berezia» kantatuko dute, zapiak kendu bitartean, eta auzotarrei parte hartzeko deia luzatu diete.

Gainera, Lizeaga auzotarrek honakoa gogorarazi nahi izan dute «hasi pintxo eta lepoko zapia prestatzen! eta ez ahaztu gure leloa: ez tankeekin, ez anulantiarekin... ez dago zer egirik balkoinautekin». **K**



Lizeagako auzotar askok osatu dute Maritxu Balkoi taldea, eta gaur egingo dute agurra.

Maiatzaren 6an gertatutako indarkeria matxistaren aurrean, «gaitzespena» adierazi du Astigarragako Udalak

Asteazkenean, Angelun (Lapurdi) gertatu zen indarkeria sexistaren aurrean, Astigarragako Udalak, «gaitzespen gogorra» adierazi du.

ASTIGARRAGA UDALA

Astigarragako Udalak, maiatzaren 6an, Angelun gertatutako indarkeria sexistaren aurrean, «gaitzespen gogorra» adierazi du, eta bere laguntza, nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die «mota horretako erasoak pairatzen dituzten emakumei eta bere ingurukoiei». Astigarragako Udalak dituen informazio

eta baliabide guztiak erasotutako emakumeen esku jarri ditu, «bere onera etortzeko prozesuan behar dezaketen laguntza guztia barne», eta aipatu du alarma egoeran gainera indartu egingo dutela, *Gertu* arreta zerbitzua bidez.

Astigarragako Udalak, 2019an, *Udalaren eraso matxistaren aurrean jokatzeko eta erantzuteko protokoloa* sortu zuen,

hori dela eta, honelako gertaeren aurrean, protokolo instituzionala aktibatu du. «Kasu honetan, gertaera gaitzesteko» eta gainera bat egin zuen ostiralean egindako Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxaren deialdiarekin.

Udalaren jarrera, «irmoa»

Astigarragako Udalak, aipatu du, udalak hartu duen jarrera, «irmoa, argia eta garbia» dela. Azpimarratu dute, ez dituztela onartuko «emakumeen esku-bideak urratzen dituzten eraso

makur hauek, eta bestetik, herritar guztiei bide bat eskaini nahi diegu, gaitzespen argi bat agertu dezaten emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurka. Indarkeria ez baita soilik eraso edo hilketari pairatzen duten emakumeen arazo».

«Arazo sakon bat»

Astigarragako Udalaren arabera, emakumeen aurkako indarkeriak, «erasotzaile eta biktima banakakoak ditu beti», baina arazo sakon bat dagoela aipatu du, honakoa hain zuzen, «ema-

kumeak kontrolpean eta mendean izan nahi dituen ideologia. Indarkeria sexista emakume guztiek emakume izateagatik edota emakume itxuria izateagatik jasaten duten indarkeria da. Beraz, indarkeria hori ez da ekintza bakartuen edota azalpenik gabeko gertakarien emaitza». **K**



Zorionak Laia!
Famili guztian partez. Muxu haundi bat.
6 urte

**ANTZIOLA**
OKINDEGIA

ANTZIOLA, 3
943 55 17 91
HERNANI

MENDIKUZE
OKINDEGIA, S.L.



Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA
Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

sulabe

Valella
okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

**ADARRAGA**
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

GAUR Gaur erabat aldatuko da eguraldia. Zerua oso hodeitsu edo estalita egongo da ia egun osoan eta euria etengabe egingo du. Gainera ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da. **Min.13° / Max.17°**

BIHAR Euri gutxiago egingo du bihar. Goizean hodeiak ez dira ugariak izango, baina arratsaldean hodeiak ugariak izango dira. Tenperatura aldetik, ez da aldatetarik izango. **Min.11° / Max.16°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Bihar hasiko den lehen fasea mugatu du, Eusko Jaurlaritzak

Bihar hasiko da lehen fasea, eta Eusko Jaurlaritzak erabaki du, udalerrri barrura mugatuta egongo direla joan-etorriak.

URUMEA LEHEN FASEA

Atzo goizean, Espainiako Gobernuak aldizkari ofizialean argitaratu zuen lehenengo fasea, eta Eusko Jaurlaritzak mugatu egin du. Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoan, pertsonen joan-etorriak udalerrri barrukoak izango dira, hain zuzen, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta soilik lanera edo eskolara joateko onartuko da udalerritik ateratzea, eta beste salbuespen kasu batzuetan.

Eusko Jaurlaritzak aipatu du, fase batetik bestera modu «seguruan» igaro nahi dutela, «badakigu neurri zorrotzagoak direla, baina ez dugu arriskurik nahi. Izan ere, gehiegizko mugikortasunak eta jende pilaketek arriskua eragin dezakete». Garraio publikoak ez erabiltzeko gomendioa era luzatu du Jaurlaritzak, «lanera joateko» ez bada.

Espainiako Gobernuak, kul-

tur ekintza txikiak egiteko baimena eman du, baina Eusko Jaurlaritzak aipatu du Euskal Autonomia Erkidegoan ez dela «inolako jarduerarik» izango. Kirol arloan ere, antzera, «eliteko kirolaz» gain, kalean egiten den ariketa fisikoa baino ez dute baimenduko.

Lehenengo fasean, aldaketa garrantzitsua

Aldaketa nagusi batzuk egongo dira lehenengo fasean, izan ere, tabernak eta dendak ireki daitezke, «bezero kopurua mugatuta» eta gehienez «hamar lagun elkartzeko aukera» izango dute senideek eta lagunek. Hori bai, orain arte ezarritako ordutegiak errespetatuz.

Nafarroa ere, lehen fasean

Nafarroa ere sartu da lehen fasean, eta gobernuak ez du iragarri neurri murriztailerik. Bihar hasiko da lehen fasea, eta hi-

laren 24ra arte egongo da indarrean. Ordurako erabakiko dute zein herrialde igaroko diren hurrengo fasera.

Urumea Harana Pastoral Barrutiak, mezak datorren igandetik aurrera

Datorren igandean ekingo zaio berriro ere mezak emateari, hori adierazi du Urumea Harana Pastoral Barrutiak.

Hala ere hainbat gomendio eta baldintza helarazi nahi izan ditu, hala nola, osasun arazoak edo adinekoei etxean geratzeko gomendatzen dute, «irratiz har dezakete parte». Elizara joango direnak, eskuak ondo garbituta eta maskarilarekin joateko gomendioa ere luzatu dute.

Gaineratu dute, aste barruan gerta daitezkeen hiletak ospatuko direla. «Orain arte ospatu gabeko hildakoen familiekin harremanetan gaude, eta ekaina eta uztaileko larunbatetan hileta-mezak ospatzeko, proposamena eman diegu».

Pandemiak iraun bitartean gainera, Agustinetako igandeko meza, 09:00etan egiten dena, San Joan parrokiara pasako da, ordu berean. **K**

Bi mendi-lote enkantean jarri dira

Horiek eskuratzeko esakintzak hilaren 19ra arte aurkeztu daitezke.

GOIZUETA UDALA

Oihan enkantea jarri du mar txan Udalak; bi mendi-lote dau- de aukeran, eta hauek eskuratzeko esakintzak hilaren 19ra arte egin daitezke.

1.500 eta 2.000m³-ko lote bana Aukeran jarri diren loteak bi dira. Bata, Etxola-Galtzaburu, Zimizketa eta Errekalko parajeei dagokiena, 1.512,90m³-koa. Aletzea eta pinu larizoa ditu, eta hasierako prezioa 21.281,12 eurokoa da.

Bestea, berriz, Etxolla azpia eremuari dagokiona da, 1.939,10m³-koa. Haritz amerikarra dauka, eta hasierako prezioa 45.911,52 eurokoa da.

Lote horiek lortzeko enkantean parte hartzeko esakintzak maiatzaren 19ra aur-

keztu daitezke, bi modutan. Batetik, modu presentzalean, Goizuetako udaletxeko idazkari- ritzara jota, goizeko 09:30etatik 11:00etarako tartean. Baina, koronabirusak eragindako egoera medio, alde aurretik hitzordua hartzea gomendatzen da, 948 51 40 06 telefono zenbakira deiuta.

Bestetik, posta bidez, Correos-eko bulego batean aurkeztu daitezke esakintzak. Kasu honetan, gutunazal irekian egingen da, Correo-eko langileek eskabide data eta zigilua jartzeko. Hori egin iza- na Goizuetako Udalaren aurrean egiaztatu beharko da, eta aurkeztu den egunean mezu elektroniko bat bidali beharko da udala@goizueta.eus helbidera.

Enkantean parte hartzeko agiri hauek aurkeztu behar dira: plegu bakarren aurkezten den lotearen zehaztapena eta lizitatzailaren identifikazioa. Plegu honetan bi gutunazal itxi sartuko dira: 1 zenbakidun dokumentazio administratiboa aurkeztuko da, eta 2 zenbakidun-ean, eskaintza ekonomikoa. **K**

Udalak, bonoaren %30a ordainduko du

HERNANI OKERRAK ZUZEN

Atzoko Kronikan, akatsa zegoen, izan ere, udalak 600.000 euro bideratuko ditu jarduera ekonomikoa suspertzeko; herritarrek bonoaren %70 ordainduko dute; Udalak %30.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

Herritarrei «jarrera jasanezinen» aurrean salatzeko deia, Sortuk

Konfinamendua hasi zenetik, 8 aste igaro dira, eta Sortuk, herritarrek izan duten jarrera «arduratsuz» jardun du.

HERNANI SORTU

Hernaniko Sortuk, aipatu du, jada 8 aste igaro direla, «Covid 19aren hedatzearen aurrean etxean konfinatu ginenetik. Pandemiaren aurrean, arriskuan zueden gizarte sektoreak babesteko konfinatu ginen». Horrez gain, Sortuk dio, bizitza lehenetsi genuela ekonomia- ren gainetik, «nahiz eta Euskal Herriko elite ekonomiko eta politikoak aurka azaldu ziren hasieratik. Argi erakutsi digute, zeintzuk diren beraien lehen- tasunak, jendearen osasunarekin jolastu dute, beraien interes ekonomiko eta politikoak babesteko».

Guzti honen aurrean, Sorturen ustez, herritarren jarrera

«eredugarria» da, zaintza taldeak sortu baitira, gehien behar zutenei laguntzeko eta «guztion lanarekin lortu dugu egoera pixkanaka hobetzen joatea».

«Tentsio eta gatazka momentu batzuk izan dira kalean, baina kasu askotan tentsio hauek ez ditugu herritarrok sortu»

Hala ere, Sorturen arabera, arazoren bat egon da. Izan ere, egoera berezi honetan, «tentsio eta gatazka momentu batzuk izan dira kalean, baina kasu askotan tentsio momen-

tu hauek ez ditugu herritarrok sortu». Herritar batzuen kezak iritxi zaizkiela aipatu dute Sortuko kideek, «herrian dabilzan polizia desberdinetako agente batzuen jarrera salatuz, batzuk uste dute egoera honek boterea ematen diela edozein momentu edo egoeratan isunak jartzeko, eta edozeini handikeriaz eta era bortitzean zuzentzeko. Eta ez dugu onartuko gure herrian halako jarreraik».

«Guztion lanarekin lortu dugu egoera hobetzea»

Sorturen deia, herritarrei

Sortuk herritarrei dei egin nahi die, «horrelako egoeraren bat tokatuz gero, beldurrik gabe salatzera joateko. Hernanin jarrera batzuk soberan baitaude». **K**

JUAN CUESTA OSSORIO

*Plaza Berrin eserita
irribarrez gogoratuko
zaitugu*

EVA ETA URKOREN LAGUNAK

Hernanin, 2020ko maiatzaren 10ean

ANTONIO TEJEDOR ORTIZ

*Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko*

**ANAI-ARREBAK: PACO, ESCOLI,
MARI CARMEN ETA ANA**

Hernanin, 2020ko maiatzaren 10ean

IRAGARKI MERKEAK

Lokal-garajea salgai, Arantzazu Plazan (udalaxe atzean). Bi kotxerentzako dauka tokia, eta zuzenean kalera joateko iteera. Sukaldea eta komuna ditu, eta 42m². **Deitu: 699 492 235 Iñigo Royo Masajista.** Masajista, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**